

# XEDAPEN OROKORRAK

## KONSTITUZIO AUZITEGIA

### 3646

*EDIKTUA, Ciudadanos talde parlamentarioko berrogeita hamar diputatuk baino gehiagok sustatutako 3413-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoren ondoriozkoa. Apirilaren 4ko 5/2019 Legearen lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren artikuluen kontra jarri da errekurtsio hori, Espainiako Konstituzioaren 18.1, 18.4, 24.1, 24.2 eta 25.1 artikulua urratzen dituelakoan; 5/2019 Legeak uztailaren 28ko 12/2016 Legea aldatzen du, Terrorismoaren biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.*

Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurak, 2019ko uztailaren 2ko Probidentziaren bidez, Ciudadanos talde parlamentarioko berrogeita hamar diputatuk baino gehiagok sustatutako 3413-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa izapidetzeko onartu du. Apirilaren 4ko 5/2019 Legearen lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren artikuluen kontra jarri da errekurtsio hori, Espainiako Konstituzioaren 18.1, 18.4, 24.1, 24.2 eta 25.1 artikulua urratzen dituelakoan; 5/2019 Legeak uztailaren 28ko 12/2016 Legea aldatzen du, Terrorismoaren biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.

Madril, 2019ko uztailaren 2a.

Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkuraren Justizia-idazkaria,  
HERMINIA PALENCIA GUERRA.